

**ETXEBIZITZEN ERAIKINETAKO OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEKO
DIRU LAGUNTZEN DEIALDIA - 2019**

1. ARTIKULUA. HELBURUA

1.- Deialdi honen helburua da bizitegi-eraikinetako barruko aldeko elementu bateratuetan dauden oztopo arkitektonikoak eta atarian bertan berehala sartzeko dauden kanpoko oztopoak kentzeko (mailak edo eskailera-mailak, esaterako) eta, halakorik ez dagoenean, igogailua jartzeko obren betearazpenaren finantzaziorako diru-laguntzak esleitzea.

Era berean, bizitegi-eraikinen inguruetan lehendik dauden erabilera publiko zein pribatuko titularitate pribatuko kanpoko urbanizazioak eraldatzeko obren finantzaziorako diru-laguntzak ematea ere deialdiaren helburua izango da, baldin eta obra horiek oztopo urbanistikoak kentzea badakarte.

2.- Deialdi honetan, ez dira inolaz ere kontuan hartuko Surbisaren jarduketa-eremuan dauden eraikinetan egindako jarduketak (Zazpi Kaleak, Bilbo Zaharra, Trenbideko Langileen auzoa, Zorrotzaurre, Gurutze auzoa, Olabeaga, Zazpilanda, Iralako eremu hondatuak eta Iralako alde historikoa).

2. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Deialdi honetako diru-laguntzak honako hauexen arabera arautuko dira: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; lege hori garatzeko asmoz uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako araudia; eta Bilboko Udalak eta bertako zuzenbide publikoko erakunde eta organismoek deitutako diru-laguntzak esleitzeko asmoz 2016ko ekainaren 30ean udalbatzak hartutako erabakipeko ordenantza orokorraren bidez onartutako eta 2016ko uztailaren 20ko 138. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako oinarri arautzaileak.

3. ARTIKULUA. ERAIKINEN AURRETIAZKO BALDINTZAK

1.- Oro har, oztopo arkitektonikoak kentzeko laguntza ekonomikoak lortu ditzaketen bizitegi-eraikinek honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

- a) Higiezinaren erabilera nagusia bizitegi-erabilera izatea.
- b) Higiezinan bertan bizitegi-arlokoa ez den erabilerarik badago, bere ehuneko ezingo da izan eraikinetan eraikitako azalera guztiaren %50 baino handiagoa, beheko solairuak eta sotoak kontuan hartu gabe, hala badagokio.
- c) Hamar (10) urteko edo hortik gorako antzintasuna edukitzea.
- d) Eraikinaren altuera osoa gutxienez lau (4) solairukoa izatea, beheko solairua kontuan hartuta.

2.- Laguntza eskatu baino lehen, udal honetako Hiri Plangintzarako Sailean aurkeztu beharko da dagokion Eraikinen Azterketa Teknikoaren txostena, eraikinak 50 urte baino gehiago baditu.

Dena dela, jarduketa igogailua jartzeko bada, eraikinaren antzintasuna edozein izanda ere, aldez aurretik Eraikinen Azterketa Teknikoaren txostena aurkeztu beharra dago.

Eraikinen Azterketa Teknikoaren txostena, ordea, ez da honako egoera hauetan eskatuko:

a) Laguntza-eskabidearen xedea 8.4 artikuluan aipatutako aurreproiektu bateratua idaztea denean.

b) Laguntza-eskabidearen xedea 8.6 artikuluan aipatutakoa, hau da, lehendik dauden urbanizazioen eraldaketa egitea denean.

3.- Ez da inolako laguntzarik esleituko, etxebizitzak familia bakarrekoak edo familia bikoak, isolatuak edo atxikiak, direnean.

4. ARTIKULUA. MUGIKORTASUN URRIKOAK

Artikulu honetako 1. idatz-zatian aurreikusitako eskakizunak salbuetsi egingo dira, eraikin horietan hirurogeita hamar (70) urtetik gorako jendea edo ibiltzeko, eskaileretatik igotzeko edo oztopo arkitektonikoak gainditzeko gaitasun urria duen jendea bizi denean, protesirik edo gurpil-aulkirik behar ez badute ere.

5. ARTIKULUA. ONURADUNAK

1.- Oztopo arkitektonikoak zein urbanistikoak kentzeko edo, halakorik ez dutenean, igogailua jartzeko jarduketak egiten dituzten bizitegi-eraikinetako pertsona fisiko edo juridiko jabeek eta jabe-erkidegoek eskatu ahal izango dute diru-laguntza edo, hala badagokio, obra horiek betearazi eta finantzatu egiten dituzten interesdunek ere bai.

2.- Eskatzaileak ezingo dira onuradunak izan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan adierazitako debekuren baten eraginpean badaude.

6. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntzetako onuradunek Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 14. artikuluan zehaztutako betebeharrak bete beharko dituzte.

Batez ere, esleipena ebazteko proposamena eman baino lehen egiaztatu beharko dute zerga-arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharren betearazpenean egunean daudela.

Diru-laguntza ez da ordainduko, izapideak egitean zerga-arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharren betearazpenean egunean egon ezean.

7. ARTIKULUA. AURREKONTU-KREDITUAK

1.- Deitutako diru-laguntzak Bilboko Udalak 2019ko ekitaldirako onartutako aurrekontuko 32000 15220 78099 (PEP 2019/00231) kontu-sailaren kontura finantzatuko dira.

2.- Deialdi honetarako zenbatekoa ZAZPIEHUN MILA (700.000) EUROKOA izango da.

3.- Zuzkidura hori agortutakoan, ez da laguntza gehiago emango, harik eta aurrekontu-zuzkidura berria baimendu arte, eta hori udalaren webgunean argitaratuko da.

4.- Aurrekontu-zuzkidura aurkeztutako eskabideen arabera handitu ahal izango da, deialdi berria egin gabe.

8. ARTIKULUA. LAGUNTZA EKONOMIKOAK

1.- Igogailua jartzea:

1.1. Jarduketaren helburua halakorik ez daukan eraikinean igogailua jartzea denean, obraren benetako kostuaren %10eko diru-laguntza izango da laguntza ekonomikoa, eta ez da itzuli beharko.

Laguntza horren gehienezko zenbatekoa bederatzi mila (9.000) eurokoa izango da.

Gehienezko muga hori beste suposamendu batean ere ezarri ahal izango da, hau da, igogailua jartzeko zenbait jarduketa eta oztopoak kentzeko beste edozein jarduketa batera egiten direnean, aldi berean egin nahiz ez egin.

1.2. Igogailua jartzeko ibilbide erabilgarri globala sortu behar denean edo igogailua jartzeko eraikinaren lurra edo zatiak erosi edo haien jabetze kendu behar izan denean, eta, betiere, obraren benetako kostua 90.000 eurotik gorakoa izan denean, honela kalkulatu da laguntzaren zenbatekoa, 15.000 euroko (15.000 €) kopurua gainditu barik:

- 90.000 euroko zenbatekoraino, % 10eko ehunekoa ezarriko da.
- Kostuaren gaineratikoa, ordea, % 8ko ehunekoa ezarriko da.

Ondorio horietarako, ibilbide erabilgarri globala kaletik etxe bizitza bakoitzera eskailera-mailarik ez duen ibilbidea izango da. Bitarteko mekanikoak erabili behar badira, erabilgarri globalekotzat joko da jasogailua badu; aitzitik, ez da halakotzat hartuko translazio zeharrekotako bitartekoak erabiltzen badira.

Laguntzaren zenbatekoa zehazteko, igogailua jartzearen kostua ez ezik, oztopoak kentzeko neurriena ere hartuko da kontuan, baldin eta aldi berean egiten badira esku-hartze berean.

2.- Igogailuaren ibilbidea luzatzea:

Jarduketaren helburua lehendik zegoen igogailuaren ibilbidea luzatzea denean, obraren benetako kostuaren %10eko diru-laguntza izango da laguntza ekonomikoa, eta ez da itzuli beharko.

Laguntza honen gehienezko zenbatekoa sei mila (6.000) eurokoa izango da.

Gehienezko muga hori beste suposamendu batean ere ezarri ahal izango da, hau da, igogailuaren ibilbidea luzatzeko zenbait jarduketa eta oztopoak kentzeko beste edozein jarduketa batera egiten direnean, aldi berean egin nahiz ez egin.

3.- Oztopo arkitektonikoak kentzeko beste jarduketa batzuk garatzea:

Jarduketaren helburua oztopo arkitektonikoak kentzeko beste jarduketa batzuk garatzea denean (eskailera-igogailuaren instalazioa, arrapalaren eraketa...), obraren benetako kostuaren %10eko diru-laguntza izango da laguntza ekonomikoa, eta ez da itzuli beharko.

Laguntza honen gehienezko zenbatekoa bi mila eta bostehun (2.500) eurokoa izango da, aldi berean egin nahiz ez egin.

4.- Aurreproiektua egitea:

Jarduketaren helburua igogailuaren instalazioaren bidez irisgarritasuna hobetzeko aurreproiektu bateratua egitea denean, betiere, lizentziaren osteko izapideari begira udalak berak agiri hori eskatzen bada eta onartu egin bada, agiri hori egiteagatiko ordainsarien (BEZik gabe) %100eko diru-laguntza izango da laguntza ekonomikoa, eta ez da itzuli beharko.

Laguntza honen gehienezko zenbatekoa mila eta bostehun (1.500) eurokoa izango da.

5.- Otxarkoaga inguruan igogailua jartzea:

Otxarkoagako Irisgarritasuna Hobetzeko Plan Bereziko ezarpen-eremuan, igogailua jartzeko laguntza ekonomikoa obraren benetako kostuaren %20ko diru-laguntza izango da, eta ez da itzuli beharko.

Laguntza honen gehienezko zenbatekoa hamabost mila (15.000) eurokoa izango da, eta muga hori igogailua jartzeko bi jarduketak eta oztopoak kentzeko beste edozein jarduketa batera egiten direnean ere ezarriko da, aldi berean egin nahiz ez egin.

6.- Dauden urbanizazioak eraldatzea:

Jarduketa bizitegi-eraikinen inguruetan lehendik dauden erabilera publiko zein pribatuko titularitate pribatuko kanpoko urbanizazioak eraldatzeko obrak egitea denean, baldin eta obra horiek oztopo urbanistikoak kentzea badakarte, diru-laguntza jarduketaren benetako kostuaren % 20 izango da eta itzuli beharrik gabekoa izango da diru-laguntza.

Laguntza horren gehieneko kopurua lau mila (4.000) euro izango da.

Igogailua jarriz gero, laguntza ekonomikoa jarduketaren benetako kostuaren % 10 izango da eta itzuli beharrik gabekoa izango da laguntza.

Laguntza horren gehieneko kopurua bederatzi mila (9.000) euro izango da.

7.- Eraikinetan etxebizitzetan sartzeko eskailera bat baino gehiago dagoenean, igogailu bat baino gehiago jartzea edo oztopo arkitektonikoak kentzeko obrak egitea izan ahalko da diru-laguntzaren helburua, betiere, zenbait etxebizitzari zerbitzua ematen badiete. Mugak, gainera, artikulua honetan zehaztutakoak izango dira, eta banan-banan ezarriko dira eskailera bakoitzean.

8.- Obraren benetako kostua diruz lagundu daitekeen gastutzat joko da, eta honako hauxe kontuan hartuko da bertan: igogailuaren zein jasogailuen lanaren kostua,

obrarako emandako laguntza teknikoagatiko ordainsariak eta, hala badagokio, lursailak edo eraikuntzaren zatiak erosi edo desjabetzeagatiko prezioa.

BEZa, tasak eta udal-zergak ez dira kontuan hartuko.

9.- Diruz lagundu daitekeen benetako kostua zehazteko orduan, obren zuzendaritzak, beharrezkoa izanez gero, behar besteko ziurtagiria egingo du, azken ziurtagirian oztopo arkitektonikoak zein urbanistikoak kentzeko edota igogailu berria jartzeko behar-beharrezkoak diren obren kuantifikazioa bakarrik kontuan hartu dela egiaztatzeko.

9. ARTIKULUA. BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

1.- Laguntza hauek bateragarriak izango dira nazio-mailako, Europar Batasuneko edo nazioarteko organismoetako edozein erakunde publikok edo pribatuk edo beste edozein administraziok helburu bererako emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

Dena dela, ez dira bateragarriak izango Bilboko Udaleko beste sail batzuek helburu bererako emandako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin

2.- Modu isolatuan edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, esleitutako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin izango du inolaz ere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

10. ARTIKULUA. ESKABIDEAK

1.- Laguntzak lortu nahi dituzten pertsona fisiko edo juridikoek obra amaitutakoan aurkeztu beharko dute eskabidea, eta honako agiri hauek erantsi beharko dituzte:

- a) Eskatzailearen IFK edo NANaren kopia.
- b) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluan aurreikusitako debekuren baten eraginpean ez daudela adierazteko ardurapeko aitorpena. I. eranskina.
- c) Udalari borondatez eman beharreko baimena, zerga-arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharren betearazpenari buruzko datuak arakatzeko. I. eranskina.
- d) Zerga-arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharren betearazpenean egunean daudela egiaztatzeko asmoz zerga-arloko administrazio eskudunak eta GSDNk indarreko urtean egindako ziurtagiriak, hurrenez hurren, betiere, aurreko idatz-zatian aurreikusitako baimena aurkezten ez bada edo udalak ziurtagiriak lortu ezin baditu.
- e) Obren azken likidazioa, administrazio honi lehenago aurkeztu zaionean izan ezik; obren, instalazioen, tresnen eta ordainsari teknikoek faktura originalak; eta erositako edo desjabetutako lursailagatik edo eraikuntzaren zatiagatik ordaindutako prezioaren egiaztatzea. Agiri originalak prozedura amaitu eta gero itzuliko zaizkie interesdunei.

Dokumentazio hori desglosatuta egongo da, kontzeptuen arabera; eta horrela diru-laguntzaren xedea den aurrekontua beren-beregi justifikatuta geratuko da.

- f) Behar bezala betetako "hartzekodunen fitxa", bankuko kontuaren titularitatearen egiaztatzea eta, pertsona juridikoen kasuan, NANaren fotokopia eta ordezkariaren ahalordeen fotokopia. II. Eranskina.
- g) 4. artikulua aplikatu behar denean, adinari buruzko ziurtagiria edo desgaitasunaren egiaztatzea.

2.- Eskabideak Bilboko Udaleko Erregistroan aurkeztu edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein sistemaren bidez bidali ahal izango dira.

3.- Eskabideak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean aurkeztu osteko hurrengo egunean hasi eta 2019ko azaroaren 15ean amaituko da. Informazioa udalaren webgunean ere egongo da ikusgai ([www.bilbao.net/Area de Planificaci3n Urbana](http://www.bilbao.net/Area_de_Planificaci3n_Urbana)).

11. ARTIKULUA. IZAPIDEAK

1.- Deialdi honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoak lortzeko, jarduketek obretarako derrigorrezko udal-lizentzia eduki beharko dute, hala badagokio, eta amaituta egon beharko dira, 8.4. artikuluan aurreikusitako laguntzetan izan ezik. Halakoetan, hain zuzen ere, aurreproiektua onartu ondoren ebatziko da esleipena, eta ordainduko da laguntza.

2.- Era berean, eskabidea berriro egin gabe, lehenago aurkeztutako eskabideak deialdi honetan bertan kontuan hartuko dira, betiere, esleipena ebatzi gabe eta laguntza ordaindu gabe badago.

3.- Laguntza hauetan, ez dira jarduketak kontuan hartuko, fakturak edo, ordainketak partzialak izanez gero, azken likidazioak 2018ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoak badira, aurreko atalean jasotakoak izan ezik.

12. ARTIKULUA. ESLEITZEKO ETA EBAZTEKO PROZEDURA

1.- Diru-laguntzen deialdi honetarako aurrekontu-kreditua 8. artikuluan zehaztutako laguntzen zenbatekoetan banatuko da deialdi honetako eskakizunak bete egiten dituztela egiaztatzen duten pertsonen edo erakundeen alde. Aukera hori, gainera, aurrekontu-zuzkidura agortu arte egongo da zabalik.

Laguntzen esleipenari buruz ebazteko orduan kontuan hartuko den lehentasunezko hurrenkera eskabidea forman aurkezten deneko datakoa izango da.

2.- Prozedura izapidetzeko organo eskuduna Hiri Plangintzarako Saileko Aurrekontu, Kontratazio eta Informatizazio Sekzioa izango da.

Organo izapidegile horrek ebazpen-proposamena egingo du honako hauxe egiaztatu ondoren:

- Udal-ikuskaritzak behar besteko txostena egin du, diruz lagundutako obrak behar bezala burutu direla adierazteko.

- Onuradunak Eraikinen Azterketa Teknikoaren txostena aurkeztu du, beharrezkoa izan denean.

- Onuraduna zerga-arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharren betearazpenean dago egunean, eta udal honekin ez dauka zerga-arloko inolako zorrik edo zehapenik epe exekutiboan, betiere, geroratuta, zatikatuta edo etendako betearazpenpean ez badaude.

3.- Gobernu Batzordeak edo berak eskuordetutakoak ebatziko du prozedura.

Ebazteko eta interesdunei jakinarazteko gehienezko epea lau hilekoa izango da, deialdiaren laburpena argitaratuta, eskaria aurkezten denetik hasita.

Ebazteko eta ebazpenaren berri emateko gehienezko epea igarotakoan, eskabidea isiltasun administratiboagatik ezesten dela ulertu ahal izango da.

Eskatutako diru-laguntzaren esleipena erabaki edo ukatzen duen ebazpenak bide administratiboari emango dio amaiera.

Dena dela, ebazpen horren aurkako aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organoan bertan, eta horretarako epea hilabetekoa izango da, jakinarazpena egiten denetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango da kasuan kasuko Administrazioarekiko Auzi Epategian, eta horretarako epea bi hilabetekoa izango da jakinarazpena egiten denetik hasita.

4.- Prozedura izapidetzeko eta ebazteko egintzak banakako jakinarazpenaren bidez jakinaraziko dira.

13. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Hiri Plangintzarako Saileko Ordezkaritzak esleitutako diru-laguntza ordaintzeko ebazpena emango du, onuradunari ebazpen horren berri emango zaio eta Udal honetako Hartzekodunen Erregistroan haren izenean dagoen bankuko kontuan egindako diru-sarreraren bidez ordainduko da.

14. ARTIKULUA. JUSTIFIKAZIOA

Diruz lagundu daitekeen jarduketaren garapenaren justifikazioa diru-laguntza eman baino lehen aurkeztuko da justifikazio-kontu moduan.

Diruz lagundutako ezaugarrien eta onuradunen arabera, honako osagai hauek izango ditu:

- Obren azken likidazioa, obra-motaren arabera beharrezkoa denean.
- Obren, instalazioen, tresnen eta ordainsari teknikoaren faktura originalak.
- Igogailua jartzeko orduan erositako edo desjabetutako lursailagatik edo eraikuntzaren zatiagatik ordaindutako prezioaren egiaztagiria.

15. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRU LAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Emandako diru-laguntza guztiak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen eta udalaren webgunean argitaratuko dira.

Bilbon, 2019ko urtarrilaren 23an
Hiri Plangintzarako Saila